

Joxepa Zubeldia Elizegi



Udalerria: Hernani (Gipuzkoa)

Jaiotze-data: 1867-01-01

Heriotza data: 1947-01-01

Lanbidea: Bertsolaria, bertso jartzailea eta dendaria

Bertsolari eta bertso jartzaile gipuzkoarra izan zen. Bertso asko idatzi zituen arren, sorta bakarra gorde da, 1918an Hernaniko erietxera baztanga zuten gaixoak ekarri behar zituztela eta izandako matxinadari buruzkoa. Urte horretako ekainaren 1ean, garaipena ospatzeko Hernaniko Ezkiaga pasealekuan egindako herri bazkarian, mahai gainera igota, kantatu zituen sortako 24 bertsoak.

Bizitza

1867ean Hernaniko Ibarluze baserrian jaio zen, izen bereko poligonoa den inguruan (baserria botea dago). Txikitan Donostiara joaten zen baserriko produktuak saltzera, auzoko beste baserritar batzuekin batera astoan edo zaldian. Goizeko bostetan Ibarluzetik abiatu eta arratsaldeko lauak arte ez zen itzultzen. Bidean Aieteko aldapan zeuden banku batzuetan kafea hartzeko ohitura zuten.

Baserriaren jabea Madrilgo mediku famatu bat zen eta neskame euskaldunak nahi izaten zituen.

Aurrena bere ahizpa Maria eraman zuen neskame eta gero bera, oraindik neskatoa zela. Han ezagutu zuen bere senarra izango zena, Manuel Ortiz Martinez, izatez Burgosko Mena Haranekoa. Madrilen ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten (Nina, Amadeo, Pepe, Joakin eta Josefina). Fuencarral kalean bizi izan ziren.

1904an Hernanira itzuli ziren. Hasieran Portu auzoko Iztil-Artenean bizi izan ziren, Shangai taberna inguruan, gero Kale Nagusiko 13. zenbakian eta azkenean 3. zenbakian. Hernanin beste bi alaba izan zituzten (Maria eta Juanita). Guztira zazpi seme-alaba eta 27 biloba izan zituzten. Senarra meatzeetan lan egindakoa zen eta asmaren ondorioz arnasa hartzeko zailtasunak zituenez ezin zuen lanik egin. Joxepa Zubeldiak janari denda bat ireki zuen Hernaniko Kale Nagusiko 3. zenbakian, Riojanos ondoan, eta horri esker atera zuen aurrera familia. Berak bakarrik eramaten zuen dendako martxa, jeneroa negoziatu, kontuak egin. Denetarik saltzen zuen dendan: esnea, barazkiak, arkumeak, oilasko eta oiloak, onddoak eta gibelurdinak, ehizatutako uso eta oilagorrak... Dendari, Barbasenea esaten zioten, bere senarra Hernaniko bizardun bakarra zelako. Aurreko aldetik Kale Nagusira ematen zuen dendak eta atzekotik Ezkiaga pasealekura. Atzeko aldean ardiak hiltzen zituzten, gazta egin... Dendaostean piano bat zeukan, ez zuen jotzen baina musika gustuko zuen. San Jose egunean, bere eguna zenez, ansorenatarrak joaten zitzaizkion txistua jotzera.

Oso gazterik Madrila joan eta urte askoan han bizi izan zen arren Joxepa Zubeldiak euskarari eutsi zion. Senarrak ez zuen euskararik ikasi eta harekin gazteleraz egiten zuen baina seme-alabei beti egin zien euskaraz. Bere semeetako bat, Joakin Ortiz, 1896-1898 inguruan Madrilen jaioa izan arren, oso gaizki moldatzen zen gazteleraz. Lagunartean bertsoan aritzen zen. Behin euskaraz kantatzeagatik atxilotu zuen guardia zibilak. Non jaioa zen galdetu ziotenean, "En Madrid" (Madrilen) erantzun zien, eta muturreko bat jaso zuen, adarra jotzen ari zitzaiela uste zutelako.

1947an Hernaniko Kale Nagusian hil zen.

Bertso jarriak

Hainbat bertso sorta idatzi zituen. Garaiko berrien inguruan idazten zuen: hilketak, istripuak eta beste gertaerak. Baina bere bertso sorta bakarra gorde da, 1918ko Hernaniko baztangaren matxinadari buruzkoa. Gainerakoak ez ziren argitaratu eta galdu dira. Poesiak eta elizako kantuak ere idazten zituen, nagusiki euskaraz, oso pertsona elizkoia baitzen. Bere alabetako baten esanetan, elizan kantatzen zituzten kantu batzuen hitzak bere amarenak ziren.

Bertsoak idazteko lekua zuen etxean, altzari, tinta ontzi eta lumarekin. Bertsoak idazteko koadernoak berak egiten zituen: paper fabrikatik puskak ekarri, plantxatu, moztu, pasta gogorragoko tapak jarri eta hari gogorrarekin josiz. Bere garaikide ziren Txirrita, Xenpelar eta beste bertsolari batzuek ere osatzen zituzten idatzizko bertso sortak, baina gehienetan etxekoen laguntzarekin, ez baitzekiten idazten.

Etxean alabek ez ziotenez idazten uzten, bere lagun Luisa bizi zen Barkaiztegi baserrira joaten zen. Urtean bizpahiru aldiz egiten zion bisita, gehienetan udan eta pare bat aste igarotzen zituen bertan. Zahartu aurretik oinez joaten zen, gero astoan edo gurdian. Han gordetzen zituen bere bertsoak, ganbarako kutxa batean. Joxeparen bilobak kutxa hori bilatzen saiatu ziren, baina ez zuten aurkitu, ustez Joxepa hil ondoren bere alabek erre zutelako.

Bat-bateko bertsoak

Eguberritan eta Sanjoanetan etxez etxe ibiltzen ziren bere anaia Kaxiano eta beste bospasei bertsolari soinu-jolearekin. Joxepa haien zain egoten zen, zapi zuria buruan, dotore jantzita eta orraztuta, eta haiek kantatutako koplei balkoitik erantzuten zien.

Joxepa eta bere anai Kaxiano antzeko adinekoak ziren eta harreman estua zuten. Joxepa batzuetan anaia bizi zen Hernaniko Portu auzoko Egañaenea baserrira joaten zen bazkaltzera, eta bazkalondoren bertsotan aritzen ziren, txandaka.

Seme-alabak lotsatu egiten ziren jendaurrean kantatzen zuenean.

1918ko Hernaniko baztangaren matxinadari buruzko bertsoak

1918an, Lasarte inguruan zenbait baztanga kasu agertu ziren. Gipuzkoako Gobernadoreak hainbat neurri hartzeko agindu zuen: Lasarteko herritarrei, Zubietako hipodromoko jockey-ei eta ukuiluetako langileei txertoa jartzea (gaixotasunaren agerraldia hipodromo inguruetan sortu omen zen) eta gaixotutako zazpi pertsona 1918ko apirilaren 2ko hamarrak baino lehen Hernaniko Benefizentzia Etxera eramatea. Gaixo horietako batzuk oso egoera larrian zeuden, hiltzeko zorian. Hernaniko herritarrek oso haserre zeuden erabakiarekin, baztanga gaitz larria eta oso hilgarria izanik, beren osasuna eta Benefizentzia Etxeko egoiliarrena arriskuan jartzen zituztela uste zutelako, eta herriko industria kaltetua izango zela beldur zirelako. Apirilaren 1ean Hernaniko udaleko udalbatzan bildu ziren Benefizentzia eta Osasun batzordea, eta herritar talde handi bat. Erabakiaren aurka egitea adostu zuten eta Gobernadorearekin Donostian biltzeko batzorde bat izendatu zuten. Gaixoekin elkartasuna eduki nahi zuten, baina herritarren osasuna arriskuan jarri gabe eta horretarako alternatibak jarri nahi zituzten mahai gainean. Gobernadoreak uko egin zion batzordearekin biltzeari. Orduan protestazko

telegramak bidali zizkieten Espainiako Ministro Kontseiluko Lehendakaria zen Maurari, eskualdeko Diputatua zen Santillanako Markesari eta Jauregiko Etxezain Nagusiari, erabakia atzeratzeko eskatuz, bien bitartean irtenbide bat aurkitzeko. Bide diplomatikoek huts egin zutela ikusirik herritarrak kalera atera ziren. Joxepa Zubeldiak ere parte hartu zuen protestetan. Garaiko aktek jasotzen dutenez, hernaniarrek "ez klase eta ez sexu, inolako diferentziarik gabe", eskura zuten guztia erabili zuten gaixoen bidea ixteko. Joxepa Zubeldiaren bertsoetan emakumeen presentziari funtsezko garrantzia ematen zaio. Lasarte eta Hernani arteko bideak barrikadaz josi zituzten eta Zinkoenea inguruan guardia zibilei aurre egin zieten. Diario Vasco egunkariak hurrengo egunean argitaratu zuenez "Gurdiz, upelez, oholez eta bestelako tramankuluz kaleetako bidea eta Donostiako errepidea itxi zituzten". Benefizentzia Etxea erretzeko zorian egon omen ziren. Azkenean Gobernadoreak atzera egin zuen eta Lasartetik gertu zeuden barrakoi batzuetara eraman zituzten gaixoak.

1918ko ekainaren 1ean bazkari herrikoia egin zuten Hernaniko Ezkiaga pasealekuan garaipena ospatzeko. Joxepa Zubeldia mahai gainera igo zen eta matxinadari buruzko 24 bertso soko sorta kantatu zuen. Joxepa eta bere familia Kale Nagusian bizi ziren eta alabak etxeko leihotik begira egon ziren lotsatuta. Urte asko igarota ere, alabetako batek Joxepa Zubeldiaren bilobei "zer lotsa guretzat, gure ama mahaira igo zenean jende guztiaren aurrean bertso haiek kantatzeraz" esaten zien. Bertsolaritza gizonezkoen giroa zen eta gogorra egiten zitzaien ama bertsoetan ikustea. Amadeo Ortiz semea haserretu egin zen eta etxera ez zela joango esan zion amari. Amadeoren andregai Josefa Sagarnak bertsolari izatea ohore handia zela aitortzeko eskatu zion eta hala onartzen ez bazuen berarengana gehiago ez joateko esan zion. Amadeok andregaiarengatik onartu zuen, negarrez, amarengana joango zela, eta azkenean bakeak egin zituzten ama-semeek.

"Bertso berrik andre batek jarrik" izenburuarekin eta "Ernaniko berrik; oso arrigarrik" azpigituluarekin argitaratu ziren zortziko txikiko 24 bertsoak, Joxepa Zubeldiaren sinadurarekin. Donostiako Raimundo Altunaren inprimategian egin zituzten bertso-paperak, baina ez da ezagutzen nork enkargatu zituen.

1.	9.	17.
Apirillaren biyan	Goizeko zaspiretan	Arren suplikatzeko
Ernaniko erriya	Ostera juañ dira	Gobernadoriari
Lau orduban egon zan	Tolosa juañ zayote	Nolako tranze estuba
Ikaragarriya	Gobernadoria	Zeguen Ernani
Karrasi ta diarka	Ayek bialdu zuten	Alkatia aurrenzala
Orduko larriya	Errira partia	Ernaniko Jaunak
Eskerrak gendubela	Bastanga eta indarra	Ondo egin zitusten
Batasun aundiya.	Beriala or dira.	Telefono lanak

2.	10.	18.
Gertaerau izan zan	Ordubantxe Ernanin	Molestatu zitusten
Astiarriarekin	Etzan lo jendia	Erregueta danak
Aurreko egunian	Kanpana ta tronkua	Garcia Prietota
Ezkenduben jakin	Dantzatubak dira	Santillana danac **
Emen izandu zala	Tronko aundikin itxi	Azkeneku tranzian
Astelenarekin	Ziraden bidiak	Estu eta larri
Gobernadore jauna	Barrika gurdi eta	Suplikatu zioten
Gogor egin nairik.	Asma al guziyak.	Koronel jaunari

3.	11.	19.
Ikusi nai zubela	Bidera atera giñan	Arren erregutzeko
Bere begiyekin	Emakume asko	Gobernadoriari
Ernaniko ospitala	Ta allegatu bañolen	Ez usteko galduzen
Nola zegon jakin	Egin degu alto	Orrela Ernani
Ia ote zegoen	Zibillak esan zigun	Permisua eskaturik
Kondisiyuakin	Etxera biltzeko	Montes prestubari

* Maura Espainiako Kontseiluko Lehendakaria zen.

** Garcia Prieto Espainiako Gobernuako Ministroa zen eta Santillana eskualdeko Diputatua.

Bertsoetan herritarren batasuna ("eskerrak gendubela, batasun aundiya" lehen bertsoan eta "orduko uniyua beti da komeni, ala gerta dedilla Biba gu ta Ernani" azkenengoan) eta emakumeen parte hartze zabala ("zaharrak eta gaztiak neskatz ta andriak, andre txit aberatsak, baita ere pobriak") eta ausardia ("Zibilla pranko baizan zaldi galantakin, guri desapiyoka beren ezpatakin, ez giñan ez izutu oyek guziyekin, danok atera giñan mirari aundiyakin") nabarmentzen dira.

Hamaika eta hamabigarren bertsoetan kontaktzen da emakumeen eta guardia zibilen arteko enkontrua: "zibilak esan zigun etxera biltzeko baizutela baimena odola ixurtzeko. Ixurtzen badezute odola gurekin hil biharrak zerate zeon zaldiekin guziok bizkor gaude gauza gogorrekin". Ez zen sinbolikoa izan borroka, 15. bertsoak ikusten denez: "hustuta petroleoz ospitala igurtzi aguro erretzeko kristal danak hautsi". Bertsoetan kontaktzen denaren arabera, protesta hori izan zen agintariak atzera eginarazi zituena, elizak Ministroen Kontseiluko lehendakari zen Maurari deitu ostean: "Apaizak eta monjak negar eta hausi halako trantzerikan ez zuben ikusi gure monja gaixuak belauniko jarri eta telefonuan Madrila Maurari".

Antonio Zabalak jasotako bertso paperaren kopia bat Koldo Mitxelena Kulturunean dago gordea. Kopia horrek, testu hauek ditu behean, eskuz idatzita: "Isidro Ansorena ernaniarra", "1er txistulari en Sn Sn" (Donostiako lehen txistularia) eta "pascua 1959" (1959ko pazkoa), baina ez dago argi urte horretan argitaratua den ala orduan bildu zuen Antonio Zabalak.

Koldo Mitxelena Kulturunean bada Antonio Zabalak bildutako beste bertsio bat ere, garaiko idazmakina idatzia, eta bertso paperarekiko aldaketa txiki batzuk dituena. Bertsio horrek "Miguel Zuaz-nabar Lasarte 6-9-59" jartzen du amaieran. Gogoan zituen bertsoak idatzi eta Antonio Zabalari eman zizkiola dirudi, bere laguntzailea baizen eta Lasarte inguruko bertsoak biltzen baizituen. Bere anai Pellorekin batera txalaparta jotzen zuen eta Artze anaiei irakatsi zieten.

Errekonozimendua

«Zubeldiaren bertsoak sekulakoak iruditzen zaizkit. Hernanik dauzkan bertso epiko ederrak iruditzen zaizkit, Orioko balearenarenak bezala baina Hernanin. Kontakizun zehatza da, grazi handiarekin egina, perla bat. Asko esaten dute hernaniarren izaeraren inguruan. Eta, gainera, rolen inguruko eskema asko hausten dituzte. Gizonak eta emakumeak kontrako roletan agertzen dira; gizonak negoziazioan, telefonoa eskuan batera eta bestera deituaz, burokrazian eta bileratan... eta biharamunean gaixoen karabana bidaltzen dutenean emakumeak ateratzen dira bidera borroka egitera. Eta emakume kontzientzia ere oso presente dago bertso sorta horretan.

Herri bazkari batean, mahai gainera igota. Oso gaizki ikusia zegoen garai hartan emakumeak plazan bertsotan egitea eta berak era horretan egin zuen. Izugarria iruditzen zait.»

—Estitxu Eizagirre

Estitxu Eizagirrek 2013an "Bertsoaren haria Hernanin" liburuan eman zuen Joxepa Zubeldiaren berri. Baztangaren bertsoak oso ezagunak ziren Hernanin, baina bertsolariari buruz deus gutxi ezagutzen zen. Liburuaren azala Joxepa Zubeldiaren birbiloba den Arantzazu Ruizek diseinatu zuen. Arantzazu Ruizen aitak eta osabak, Joxan eta Mikel Ruizek, kontatuta osatu zuen Estitxu Eizagirrek Joxepa Zubeldiaren biografia.

2014an, XIX. mende bukaeratik ordura arteko emakumezko bertsolarien informazioa eta bertso hautatuak bilduz ARGIAk argitaratutako "Bidea urratu duten bertsoak" liburuan ere jaso zuten Joxepa Zubeldiaren bertso sorta.

2014ko uztailean ordura arte Kardaberaz deitzen zen kaleari, berriz ere aitzinako izena, Andre kalea, jartzea erabaki zuen Hernaniko udalak. 2015eko otsailaren 21ean izen zaharra berrezartzea ospatzeko ekitaldiak egin ziren. Maialen Lujanbiok Andre kaleko balkoi batetik bertso saioa egin zuen eta ondoren herritarrek Joxepa Zubeldiaren bertsoak kantatu zituzten. Batukadarekin eta pintxo-potearekin amaitu zuten festa.

2020ko martxoaren 29an Euskal Telebistako Hitzetik Hortzera bertso saioan "Isildu ez zirenak: Joxepa Zubeldia" izenburupean berari buruz aritu ziren hizketan, XIX. eta XX. mendeko lehen erdiko andre bertsolariei eskainitako zazpi ataletako batean, eta bere bertsoak ere kantatu zituzten.

Iturria: [Wikipedia](#)

